



ARANTZako UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@terra.es

2013KO URTARRILAREN 30EKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2013.01.30.

Ordua: Arratsaldeko 19:30ean.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Imanol Artola Guridi jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn. .

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Justo Larralde Ordoqui jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Lourdes Mutuverria Picavea andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Jose Picabea Echeverria jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 5.-Tafallako Udaleko mozioa.
- 6.-Tafallako Udaleko mozioa.
- 7.-ADEMNA: diru laguntza eskaera.
- 8.-Palestinar Agintaritz Nazionalaren aitortpena.
- 9.-3Mugak Batera Plataformaren mozioa.
- 10.-Nafarroako Kutxari buruzko mozioa.
- 11.-Arantzako Eskola Kontseiluko bilera.
- 12.-"Zuk aukeratu, zuk erabaki" egitasmoari buruz.
- 13.-Alkatearen ebazpenak.
- 14.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2013ko urtarrilaren 7an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin:

-7. puntuan Ander Almandoz Indakoetxea jaunak baimena ematearen alde agertu da baino gaia arautuz hurrengoetarako ere.

2.-JUSTO LARRALDE ORDOQUI JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Justo Larralde Ordoqui jaunak Beratsekun eta Bordazar alderdietan zuhaitzen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik: 3. poligonoko 90.,122. eta 125. lur zatietan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Justo Larralde Ordoqui jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-LOURDES MUTUVERRIA PICAVEA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Lourdes Mutuverria Picavea andreak Morenoren Borda alderdiko zuhaitzen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik: 4. poligonoko 74. eta 78. lur zatietan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Lourdes Mutuverria Picavea andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4.-JOSE PICABEA ECHEVERRIA JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Jose Picabea Echeverria jaunak Sagaroxo alderdian zuhaitzen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik: 5. poligonoko 179. lur zatian.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Picabea Echeverria jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

5.-TAFALLAKO UDALEKO MOZIOA.

Ikusirik Tafallako Udalak bidalitako mozioa, Nafarroako Gobernuak 2012ko abenduaren 20an osasun zerbitzuari buruz onartutako neurrien aurka (garraioan, protesiak, aulki gurgildunak, makuluak... erosteko) eta eskatuz kalitatezko osasun publikoa izateko neurriak hartzea.



Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Tafallako Udalak bidalitako mozioa onartzea.

6.-TAFALLAKO UDALEKO MOZIOA.

Ikusirik Tafallako Udalak bidalitako mozioa, Nafarroako Gobernuak Udalei jarduera kulturalak egiteko diru laguntzen murrizketen aurka eta eskatuz herritarrei jarduera kulturalak sustatu eta Nafarroako udalei jarduera kulturalak diruz laguntzeko partidak berriro izatea.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Tafallako Udalak bidalitako mozioa onartzea.

7.-ADEMNA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik ADEMNAk (Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren elkarte) aurkeztutako diru laguntza eskaera.

Ikusirik 2013ko aurrekontuan ez dagoela partidarik aurreikusi diru laguntza horretarako.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren elkarteari 200,00 euroko diru laguntza ematea.
- 2) 2013ko aurrekontuaren aldaketa hasiera batez onartzea.
- 3) Aldaketa jendaurrean jartzea ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

8.-PALESTINAR AGINTARITZA NAZIONALAREN AITORPENA.

Ikusirik Palestinar Agintaritza Nazionalak bidalitako adierazpen instituzionala .

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako adierazpena onartea, ondorengo edukia izanik:
“ 1.-Erakunde honek eskaera horrekin bat egin eta Palestinar Estatuaren errekonozitze duela, Palestinar herriaren borondate nazionalaren ordezkari gisa nazioarteko herrien eta estatuaren kontzertuan. Erabaki hau Ekialde Urbileko gatazka hau modu elkarriketatu eta paketsuan konpontzen lagunduko duen pausu bat da gainera.
2.-Hori dela eta bere iharduera instituzionalean Palestinar agintaritzarekin erakunde honek izan dezaken ezein mailatako harremanetan Estatu subirau status hau izango duela gidari.
3.-Palestinari herriak bere autodeterminazio osoaren aldeko borrokarekiko elkartasun gisa eta egun historiko honetan palestinar guztiekin bat eginez gaur Palestinari ikurriña erakundeko atarian igotzea erabaki duela.
4.-Egun berezi honetan Palestinari herriaren aurka burutzen den okupazio ilegalarekin eta zapalaketarekin amaitu dadin eskaera berresten duela. Israeleko estatuak azken asteoan burutu dituen eraso militarrik nazioarteko legediaren urraketa eta krimen gisa epaituak izan ditezten galdatzen dugu.
5.-Erakunde honek Palestinari Agintaritza Nazionalari hartutako erabakiaren berri emango dio, agintaritza hau zorionduz.”

9.-3MUGAK BATERA PLATAFORMAREN MOZIOA.

2013ko urtarrilaren 16an, Nafarroako Gobernuak Olatzagutiko FCC-ren zementu fabrikak eskatutako UPrS-a (Udalaz gaindiko Proiektu Sektoriala) onartu zuen.

Kasu hau, orain arte aurrekaririk ez duen udal autonomiaren aurkako eraso da eta udal-eskuduntzen usurpatze honek osasun publikoan ondorio larriak izango ditu, zementu-fabrikako labeetan erretzea oinarri duen hondakinak kudeatzeko jarduera baimentzea ahalbideratzen duelako. Azken finean, ingurumena eta gizakion osasuna zorrotzago zaintzen duten udal araudien ginetik igarotzen da.

Horrela, proiektu bat inposatu ahal izateko muturreraino iritsi behar izan dute, udalari bere herritarren osasunaren eta bizimodu duinaren alde egiteko ahalmena bera ere kenduz.

Hori dela eta, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1.- UPrS-a errefusatzeko, udal autonomiaren kontrako eraso zuzena delako.
- 2.- Martxoaren 16an, larunbatean, Altsasun **“No a la imposición de la incineración en Portland. Herritarren hitza errespetatu”** lelopean egingo den manifestazioarekin bat egitea.
- 3.- Deialdia herrian zabaltzeko beharrezkoak diren bitartekoak jartzea.
- 4.- Erabaki honen berri 3Mugak Batera Plataformari eta hedabideei ematea.

10.-NAFARROAKO KUTXARI BURUZKO MOZIOA.

2012ko abuztuaren 3an, Banca Civica Caixabanken integratzeko ibilbidearekin, Nafarroako garapenean urte luzez finantza motor izan den finantza entitate publiko garrantzitsuenaren desegite prozesua amaitu zen.

Absortzio operazio honekin, bizi dugun kreditu eskasiari eta ziurgabetasun eta zalantza ekonomikoari aurre egiteko, ezinbesteko finantza tresna honekiko kontrola galdu du Nafarroak.

Erabakitzeko gaitasuna desagerrarazteko prozesu honekin batera, entitate honetako zuzendaritzan edota entitate honetan ardura politikoak izan dituzten karguen aldetik bere gain ez dutela inolako ardurarik hartu egiaztatu daiteke.

Honetaz gain, egunero eskandalu berriak ezagutzen ari gara. Batetik, Nafarroako Gobernuan ardura garrantzitsuak izan dituzten edo dituzten hainbat pertsonak ezkutuko dietak jaso dituztela jakin dugu hedabideei esker. Bestetik, Nafarroako Kutxan beraien kudeaketa profesionalean irregulartasun larriak egiteagatik hainbat arduradun salatuak izan dira. Une honetan, hortaz, Nafarroako jendarteak prozesu tamalgarri hau argitu dadin sekula baino beharrezkoagoa du.

Honen guztiaren aurrean eta ordezkari politiko bezala ordezkatzeko dugun herriaren duintasuna defendatzeko dugun betebeharrak aintzat hartuz, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1.- Udal honek, Nafarroako Kutxa hondamendira eta desagerpenera eraman denez, Nafarroako jendarteak Kutxan gertatutako guztia ezagutu dezan eta ardura politikoak edota bestelako ardura guztiak argi daitezten, Nafarroako Parlamentuari premiaz Ikerketa Batzorde bat sortzea eskatzea.
- 2.- Akordio hau Nafarroako Gobernura igortzea eta herritarrei ohiko bitartekoen bidez jakinaraztea.



11.-ARANTZAKO ESKOLA KONTSEILUKO BILERA.

Koldokike Gorostiza andreak azaldu du azkeneko Eskola Kontseiluan aztertutako gaiak, eskolan egin nahi diren obrak, bertzeak bertze. Aipatu du eskolak diru laguntza lortzeko ahalegin guztiak egiteko prest agertu dela.

Idazkariak aipatu du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko teknikariarekin egon dela eta erran diotela 2012. urteko bezalako oinarriak prestatzen ari direla eta martxoan argitaratuko dela deialdia, euren ustez.

Halaber irakurri da Eskolak aurkeztutako idatzia: aurten eskolak 100 urte betetzen duenez hori ospatzeko Udalaren giza eta laguntza ekonomikoa eskatzen du.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1.- Eskolari jakinaraztea gaia Kultur Batzordearen esku uzten dela eta, konkretuki, Ander Almandoz Indakoetxea zinegotziak hartuko duela ardura.

12.-“ZUK AUKERATU, ZUK ERABAKI” EGITASMOARI BURUZ.

Nafarroako Kutxa fundazioak ireki du “Zuk aukeratu, zuk erabaki” egitasmoa eta epea ireki proiektuak aurketzeko: martxoaren 30a arte.

Egitasmoaren baldintzak aldatu dira eta beharrezkoa da Udalak eskatzea bertze elkarte eta erakundeen izenean ere.

Koldobike Gorostiza andreak erran du herrian egin direla bilerak eta erabaki dela aurtengo deialdian Guraso Elkarte eta Udalaren eskaerak aurkeztea, beti ere, kontziliazio izanik helburu.

Udalaren kasuan Pellettiki finantziatzeko eskaera egingen da.

Imanol Artola jaunak galdetu du ea jakina den bakoitzak eskatu behar duena eta ze diru laguntza eskatuko den.

Koldobike Gorostiza andreak erantzun dio ez dela diru laguntza bat, herritar bakoitza babestuko duen zerbait baizik eta 10,00 euro lortzen ahal dena herritar bakoitzatik. Gaineratu du ia hasi direla Guraso Elkartearekin batera prestatzen dena eta horretan emanen dela prestatu arte.

Imanol Artola jaunak erran du Guraso Elkarteak banatu dutela zerbait herrian zehar horri buruz.

13.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2013ko 2tik 7 arte).

14.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

15.OROIMENAREN AUTOBUSAREN MOZIOA.

Ikusirik oroimenaren autobusa ekimenean parte hartzen duten taldeek bidalitako mozioa, frankismoko ikurrei buruz.

Ikusirik erakunde batzuek, gai honen aurrean, erakutsi duten erantzukizun demokratikorik ezarengatik kezkatu eta indarrean dagoen legeria (Oroimen Historikoari

buruzko Legea eta Nafarroako Ikurrei buruzko Legea eta, bere kasuan, Iruñeko hilerri arautzen duen Ordenantza) behin eta berriz urratzen dela.

Ikusirik komenigarria dela orain arte golpezale eta gerrako hiltzaileak goresteko erabili diren espazio horiei beste erabilera ematea eta izularri horiek jasan zituztenak publikoki omentzeko baliatzea.

Kontuan hartuz Arantzako herrian ez dela franskismoa gogoratzen duen sinbolorik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Bat egitea aipatutako mozioarekin.

16.-ANTONIA ALMANDOZ LARRAIN ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Antonia Almandoz Larrain andreak Goiko Borda eta Martinborda alderdietan zuhaitzen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik: 1. poligonoko 177. eta 272. lur zatietan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Antonia Almandoz Larrain andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

17.-JUAN BAUTISTA LIZARDI BEREAU JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Juan Bautista Lizardi Bereau jaunak Osinaldeko Borda alderdian zuhaitzen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik: 2. poligonoko 209. lur zatian.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan Bautista Lizardi Bereau jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

Bertzerik gabe, gaueko 22:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAk,
Jaime Iturria Mitxelena jn.

